



TOLOSAKO
UDALA

Ogasun batzordeak 2018ko uztailaren 19an, bestek beste, ondoren aipatzen dena diktaminatu zuela adierazi nahi dizut:

3.- 2018/8 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien bidez. Hasierako onarpena.

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2018/8 espedientea aztertu da.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.

KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|------------------------------------|---|-------------------|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 130.000,00 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 120.349,00 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 10.300,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 225.000,00 |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA | | 485.649,00 |

FINANTZAKETA

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|-------------------|-------------------|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 485.649,00 |
| GUZTIRA | | 485.649,00 |

Hau guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: Abstenitu
- Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Abstenitu

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

Lehena.- Osoko Bilkurak 8/2018 kreditu aldaketa onartzea.



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- 8/2018 kreditu aldaketaren espedientea hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

LEHENDAKARIA

Tolosa, 2018ko uztailaren 19a





KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---------------------------|--|-------------------|-------------------|---------------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0700.601.06.153.20 2018 | ASFALTATZE OBRAK | 0,00 | 225.000,00 | 225.000,00 |
| 1 1000.481.01.341.00 2018 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK KIROLAREN SUSTAPENA | 220.800,00 | 10.300,00 | 231.100,00 |
| 1 0700.227.07.164.00 2018 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HILERRIA | 45.000,00 | 10.191,00 | 55.191,00 |
| 1 0300.227.07.920.00 2018 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK ADMINISTRAZIO OROKORRAK | 20.900,00 | 18.150,00 | 39.050,00 |
| 1 0600.211.01.152.11 2018 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. AGARAMUNDU | 14.000,00 | 3.500,00 | 17.500,00 |
| 1 0600.211.01.152.12 2018 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. EUSKAL HERRIA PLAZAKO ALOJAMENDUAK | 10.000,00 | 6.900,00 | 16.900,00 |
| 1 1100.226.08.172.00 2018 | INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA | 52.700,00 | 18.000,00 | 70.700,00 |
| 1 1100.226.03.431.10 2018 | PUBLIZITATEA. FERIA ETA AZOKAK | 35.000,00 | 15.000,00 | 50.000,00 |
| 1 1100.226.06.431.10 2018 | JARDUERA SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK | 120.054,94 | 28.108,00 | 148.162,94 |
| 1 0700.227.07.165.00 2018 | AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. ARGITERIA | 25.000,00 | 20.500,00 | 45.500,00 |
| 1 0200.141.00.929.00 2018 | BESTE PERTSONALA. ZEHAZTUGABEKOAK | 0,00 | 130.000,00 | 130.000,00 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 543.454,94 | 485.649,00 | 1.029.103,94 |



| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|----------------------|---------------|--------------------------------------|------------|
| a | 2 870.01 2018 | DIRUZAINZA GERAKINA, GASTU OROKORRAK | 485.649,00 |
| | | | |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 485.649,00 |

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an

ALKATEA





Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak agindutakoa betez, eta 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikularen b) letraren 2. eta 5. apartatuetan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikularen arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsoei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an
Kontu-hartzailea





KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA

GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GERAKIN ERABILGARRIA

Nik, Ainhoa Molinos Zubiaurrek, Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, 2017ko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta 2018ko aurrekontuan orain arte egindako kreditu aldaketak aztertuta

Ziurtatzen dut:

Gastu orokorretarako diruzaintza gerakin likido erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabili litekeena, 5.744.515,33 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

| | |
|--|---------------|
| Diruzaintzako gerakina guztira | 12.463.147,98 |
| (-) Kobrantza zalantzarrikoko saldoak | 2.444.896,84 |
| (-)Gehiegizko finantzaketa lotua | 345.544,10 |
| Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina | 9.672.707,04 |
| (-) Aurreko kreditu aldaketetan erabilitako diruzaintzako gerakina | 3.928.191,71 |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin erabilgarria | 5.744.515,33 |

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Alkatearen aginduz eta oniritziz.

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an

O.I.
Alkatea

